

Dodó dordokaren gutuna: itsasoak zaindu ditzagun

Kaixo, gizakiak!

Ni Dodó dordoka naiz eta gutun hau laguntza eskatzeko bidaltzen dizuet. Itsaso barean bizi naiz eta plastikoz beterik gaude. Ezin dugu ezer egin, hondakinei lotuak gaudelako.

Orain dela urte batzuk dena hasi zen. Plastikoa botatzen hasi zineten eta batzuetan likido beltz bat agertzen zen itsas-azalean. Ondorioz, nire lagun gehienak hil egin dira eta bakarrik geratu naiz.

Duela egun batzuk, itsasontzi bat pasa zen sare bat atzean zuela. Bat-batean, nire aurrean nituen arrain guztiak desagertu ziren eta ez dut ulertzen zergatik eta nola gertatu den. Hori dela eta, beldur naiz ea ez ote zaidan niri berdina gertatuko.

Animalia asko hil dira kutsadurarengatik: hondakinei lotuta zeudelako, plastikoa irentsi dutelako edota sare handi batek harrapatu eta kanpora eraman dituelako.

Itsas animaliek hainbat bilera izan ditugu hau konpontzeko, baina konturatu gara hau guztia ez dela gure erruz gertatu, baizik eta zuek behar ez duzuen guztia itsasora botatzen duzuelako.

Nire desira itsasoak lehengo egoeretara bueltatzea da. Asko gustatzen zitzaidan nire lehengo bizitza, itsasoan igeri egiterakoan espezie askorekin topo egiten nuelako. Itsasoan dibertsitate handia zegoen, baina gaur egun espezie asko daude desagertzeko arriskuan. Kutsadurara egokitu diren espezieak soilik bizi dira gaur egun itsasoetan.

Bi bide daude, zaudeten bezala jarraitzea eta itsasoaren egoera okertzea edo gauzak aldatzen saiatzea. Mesedez eskatzen dizuegu gauzak aldatzen saiatzea, etorkizunean itsasoko animaliak eta gizakiak itsaso garbi eta anitz batean bizi ahal izateko, elkar errespetatuz.

Zuen esku dago, badakigu egin dezakezuela!

Agur bero bat.

Dodó dordoka.